

«TXONTA»-KO BIRGAITZE PROGRAMATUKO BIZITEGI-INGURUNEAN DAUDEN BIZITEGI-ERAIKINEN BIRGAITZE ENERGETIKOA EGITEKO JABEEN ERKIDEGOEI DIRULAGUNTZAK ZUZENEAN EMATEKO (BANAKAKO EBALUAZIOA) DEIALDIA ETA OINARRI ESPEZIFIKOAK, 853/2021 ERREGE DEKRETUAREN 1. PROGRAMA APLIKATUZ

1. artikulua OINARRI ARAUTZAILEEN HELBURUA

Oinarri hauen helburua zera da: Txontako Birgaitze Programatuko Bizitegi Ingurunean (ERRP) dauden bizitegi-eraikinen jabe-erkidegoei birgaitze energetikora bideratutako dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

Birgaitze Programatutako Bizitegi Ingurunea Txonta kaleko 15, 17, 27, 44, 46, 48, 50 eta 52 zenbakiez eratua dago eta 75 etxebizitza biltzen ditu guztira.

Dirulaguntzak Espainiako Gobernuak, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Eibarko Udalak sinatutako hitzarmenetik eratortzen dira. Hitzarmen hori «Txonta» izeneko birgaitze programatuko bizitegi-inguruneari buruzkoa da, eta Europar Batasunak – NextGeneration-EUK finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programen barruan sartuta dago. Laguntza horiek urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuko auzo-mailako birgaitze-jardueretarako laguntzen 1. programaren esparruan ematen dira, zeinaren arabera arautzen diren Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak.

2. artikulua ARAUDI ERREGULATZAILEA

Dirulaguntzak arautzeko, oinarri hauetan ezarritakoa eta bertako deialdian eta dirulaguntzak emateko ebazpenean jasotakoa aintzat hartzeaz gain, honako arau hauek ere kontuan hartuko dira:

- a) Eibarko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorra, Udalbatzarrak 2012ko azaroaren 26an egindako bilkuran onartu eta 2013ko urtarrilaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman zena.
- b) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra.
- c) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.
- d) 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena.
- e) 853/2021 Errege Dekretua, urriaren 5koa, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak arautzen dituena.
- f) HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa.



- g) Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Kontseiluaren 2022ko azaroaren 22ko Erabakia, Eibarko Udalari zuzeneko dirulaguntza ematen diona Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren aurrekontuen kontura, eta horren ondorengo aldaketak.
- h) Aldebiko Batzordearen 03 zenbakiko Erabakia, 2022ko abenduaren 20koa, Eibarko udalerriko «Txonta» birgaitze programatuko bizitegi-inguruneari buruzkoa, Europar Batasunak – Nextgeneration-EUk Euskal Autonomia Erkidegoan finantzaturako berreskurapen, eraldaketa eta erresilientzia planeko bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak gauzatzeari lotua.

Horiez gain, hauexek ere aplikatuko dira:

- a) Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko otsailaren 8koa, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planarekin lotutako jardueren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenaren bidez argitaratua (2002ko martxoaren 4ko EHAA, 46. zk.).
- b) Eibarko Udaleko Iruzzurren aurkako Neurrien Plana, 2022ko maiatzaren 17ko Alkatetzaren ebazpenez onartua.
- c) Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2022ko martxoaren 29koa, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzean eskatzen diren iruzurraren, interes-gatazkaren, finantzaketa bikoitzaren eta estatu-laguntzen eta ingurumenari kalte ez-esanguratsua egitearen baldintzak betetzeko neurrien plana onartzen duena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez argitaratua. Ebazpen horren bidez, aipaturako akordioa argitaratzea xedatzen da (2022ko apirilaren 13ko EHAA, 74. Zk.).

Erakunde onuradunek bete beharko dituzte laguntza ematen duen Administrazioak, eta gainerako autonomia-erkidegoetako, estatuetako eta Europako agintari eskudunek ezarritako arauak, bai eta finantzaketaren jatorria dela-eta laguntza hauen onuradun izategatik ezarritako betebeharrak.

3. artikulua OINARRI ARAUTZAILEEN EREMUA ETA APLIKAZIOA.

Oinarri arautzaile hauen aplikazio-eremua Udalari birgaitze integralerako emandako zuzeneko dirulaguntzak zedarritutakoa da, oinarri hauen 1. artikulua 1. artikulua izenekoan definitutako esparruan.

853/2021 Errege Dekretuaren 10. artikulua betetzeko, kontsideratzen da Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak emandako zuzeneko dirulaguntza emateko izapidetutako dokumentazioarekin bete direla 853/2021 Errege Dekretuaren 12. artikuluan ezarritako eskakizunak.

Ondorioz, 853/2021 Errege Dekretuaren 12. artikuluan adierazitako aldebiko akordioa onartu ondoren, oinarri hauek akordio horretan finkatutako baliabide ekonomikoak kudeatzeko balio dute, honako helburua izanik:



Txonta kaleko 15, 17, 27, 44, 46, 48, 50 eta 52 atarietako “Energia-birgaitze eraginkorra”, OINARRI ARAUTZAILEEN EREMUA ETA APLIKAZIOA. 3. artikuluan garatzen den moduan

4. artikulua DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN JARDUKETAK

Deialdi honetan diruz lagunduko diren jarduketak hauexek dira:

- a) Berokuntzaren eta hoztearen urteko energia-eskaera globala murriztea lortzeko jarduketak, bai eta lehen mailako energia ez-berriztagarriaren kontsumoarenak ere, energia-ziurtapenari dagokionez, honako irizpide eta helburu hauekin:
- Eskaera energetikoan gutxienez % 35eko murrizketa bat lortzea.
 - Helburua izango da lehen mailako energia ez-berriztagarriaren kontsumoa ($\Delta C_{ep,nrenv}$) % 45 edo gehiago murriztea, neurri pasiboekin, eta esku-hartze osoan % 60 edo gehiagoko murrizketa lortzea. Kontsumo horren % 30etik beherako murrizketak ez dira kontuan hartuko.

Energia ez-berriztagarriaren kontsumoa murrizteari, berokuntzaren eta hoztearen eskari globala murrizteari eta kalifikazio energetikoa hobetzeari dagokienez, energia-eraginkortasunaren hobekuntza ex ante zein ex post egiaztatuko da, eraikin edo etxebizitza bakoitzaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria jarduketa egin aurretik eta ondoren alderatuz.

Ziurtagiri horiek, ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuak arautuak, apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuaren arabera egin behar dira (zeinaren bidez eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen den), ofizialki onartutako programa informatikoren bat erabiliz; halaber, autonomia-erkidegoko organo eskuduneari erregistratuta egon behar dute, eta teknikari eskudunek eman behar dituzte. Proiektuak beteko lituzketen etiketatze berde eta digitalerako ekarpenen ehunekoak jaso beharko dira, eta justifikazio-agiriak bidali beharko dira, Europako eta Estatuko araudi aplikagarria betetzen dela azpimarratuz.

Nahitaezkoa izango da eraikinaren ingurutzalearen elementu guztietan (fatxadak, estalkia, hegala, patioak...) esku hartzea, energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa % 30 edo gehiago murriztu ahal izateko. Ez dira kontuan hartuko eraikin bereko etxebizitza edo lokal baten edo batzuetan egindako jarduketak, banaka hartuta.

Azken lau urteetan energia-eraginkortasuna hobetzeko esku-hartzeak egin diren eraikinetan, berokuntzaren eta hoztearen urteko energia-eskaera globala lehen ezarritako ehuneko berean edo handiagoan murriztu zela egiazta badaiteke, ez da bete beharko berokuntzaren eta hoztearen urteko energia-eskaera globala murrizteko betekizuna.

Esku-hartze horietan ezarritako ehuneko edo handiagoa murriztea lortzen ez bada, baldintza bete dela ulertuko da, baldin eta esku-hartze horietan egindako jarduerak eta eskaeraren xede den jarduketan egindakoak batera hartuta, ezarritako eskariaren murrizketa-ehunekoa lortzen bada. Hori eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da.

Kalifikazio energetikoan lortutako datuen hobekuntza horiek aurreko jarduketa gauzatu izango dira, edo honako hauekin osorik edo partzialki konbinatuz:

- 1) Baoak eta haien eta inguratzaile termikoaren elementu opakuen arteko elkarguneak aldatzeko edo ordeztzeko jarduketak, elementu horien ezaugarriak Eraikuntzaren Kode Teknikoaren OD HE-ko 3.1.1.a – HE1 eta 3.1.3.a – HE1 tauletan ezarritako transmisio termikoko eta airerako iragazkortasuneko muga-balioetara egokitzeko, hala dagokionean.
 - 2) Dauden banakako galdaren ordeztzeko errendimendu handiko galdarak jartzea. Sustatuko da erregai fosilik erabiltzen ez duten ekipoak jartzea.
 - 3) Kontsumo individualizatuak kontrolatzeko banaketa barne hartzen duten berokuntza-sistema edota ur bero sanitarioko sistema zentralizatuak instalatzea biomasa-galdararekin edo energia berriztagarrien beste sistema batzuekin.
 - 4) Eraikineko energia elektriko fotovoltaikoa ekoizteko sistemak instalatzea edo autokontsumo partekatuko komunitateak edo tokiko energia-komunitateak eratuz.
 - 5) Energia berriztagarriak sortzeko beste edozein sistema instalatzea.
- b) Aurreko jarduera guztiak garatzeko beharrezkoak diren gastuak, honako hauek barne: jarduketaren garapenari eta harekin lotutako gastuei atxikitako kudeaketarenak, esku hartzen duten profesionalen ordainsarietak, proiektuak idaztekoak eta obra zuzentzekoak, ziurtagiriak eta txosten teknikoak, administrazio-izapidetzetik eratorritakoak, okupatzaileak aldi baterako birkokatzeak, gizarte-laguntzakoak eta antzekoak, betiere birgaitze programatuak bizitegi-ingurunea garatzeko jarduketei lotuak badaude. Ez dira diruz lagunduko lizentziei, tasei, zergei edo tributuei dagozkien kostuak. Hala ere, BEZa edo baliokidea den zeharkako zerga kontuan hartu ahal izango dira, baldin eta ezin badira berreskuratu edo osorik edo zati batean konpentsatu.
- c) Baimendutako enpresen bidez, amianto-hondakinak kendu, manipulatu, garraiatu eta kudeatzea, hala badagokio.

Goian deskribatutako jarduketak proiektu tekniko bakar batean sartu beharko dira. Proiektu bateratua egingo da jarduketa guztietarako, baina jarduketa bat edo batzuk bertan ez egotea onartu ahal izango da, baldin eta eraikinak proiektuko baldintzak betetzen baditu proiektua idazteko unean, eta behar bezala justifikatzen bada.

Edonola ere, birgaitzeko esku-hartzeak aplikatu beharreko hirigintza-planen aginduetara egokitu beharko dute, eta bidezkoak diren administrazio-baimenak izan beharko dituzte eta 853/2021 Errege Dekretuan jasotako eskakizun aplikagarri guztiak bete beharko dituzte, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzaren xedapenen arabera.

Dirulaguntzak esleitzeko jarduketak bakoitzaren kostuak egiaztatu ahal izateko eta ondoren justifikatzeko, laguntza horiei dagozkien atalak honako 01. taulan agertzen diren kapitulu eta azpikapituluetan agertu beharko dira:

JARDUKETA	AURREKUSITAKO ZENBATEKOA
MONITORIAZIOA BEZ-arekin	0,00 €
EIT edota ERAIKINAREN LIBURUA BEZ-arekin	0,00 €
AUDITORETZA ENERGETIKOA BEZ-arekin	0,00 €
AURRETIAZKO AURREPROIEKTUAK BEZ-arekin	0,00 €
BESTE AURRELAN BATZUK BEZ-arekin (Txostenak, Azt. Geoteknikoak...)	0,00 €
GUZTIRA, AURRELANAK (1. Programak diruz lagunduak)	0,00 €
Efizi. Energet. J. PASIBOAK BEZ-arekin (Ingurutzaila+% Kal. K.+%Hondak.+%Segurt.+%B. Lagung.)	0,00 €
E.E. AROTZERIA BEZ-arekin (Arotzeria+%Kal. K.+%Hondak.+%Segurt.+%B. Lagung.)	0,00 €
E.E. JAKTIBOAK BEZ-arekin (Galdarak+%Kal.K.+%Hondak.+%Segurt.+%B. Lagung.)	0,00 €
E.E. BERRIZTAGARRIAK BEZ-arekin (FOTOVOLTAIKOA+% Kal- K.+%Hondak.+%Segurt.+%B. Lagung.)	0,00 €
GUZTIRA, EFIZIENTZIA ENERGETIKOA (1. Programak diruz lagunduak)	0,00 €
AMANTOIA KENTZEA BEZ-arekin	0,00 €
GUZTIRA, AMANTOIA KENTZEA (1. Programak diruz lagunduak)	0,00 €
KOMUNITATE ENERGETIKOA	0,00 €
GUZTIRA, E. BERRIZTAGARRI KOLEKTIBOAK (1. Programak diruz lagunduak)	0,00 €
ORDAINSARIAK, BIRGAITZEA BEZ-arekin (proiektua+Zuz. Fak) (Aurreko kapituluak dagozkien zati proportzionala)	0,00 €
ORDAINSARIAK, GESTIOA BEZ-arekin (Administratzailea, Birgaitzearen kudeatzailea) (Aurreko kapituluak dagozkien zati proportzionala)	0,00 €
GUZTIRA, BIRGAITZE ENERGETIKO ERAGINKORRAREN ORDAINSARIAK (1. Programak diruz lagundutako zati proportzionala)	0,00 €
DIRUZ LAGUN DAITEKENA GUZTIRA, BIRGAITZE ENERGETIKO ERAGINKORRA, 1 PROGRAMA (1. Programak diruz lagunduak)	0,00 €

01. taula: Proiektuaren kapituluak eta azpikapituluak, 1. Programako funtsekin diruz lagun daitezkeen Birgaitze Energetiko Eraginkorrari dagozkionak

Dirulaguntzen xede diren jarduerak gauzatzeko gehieneko epea oinarri hauetan jasotakoa izango da; esku-hartzeak 2020ko martxotik 2024ko ekainaren 30era bitartean gauzatu beharko dira.

5. artikulua OINARRI HAUETAKO DIRULAGUNTZEN FINANTZAKETA, AURREKONTU-KREDITUAK ETA GEHIENEKO ZENBATEKOA

Dirulaguntza hauek emateko udal Aurrekontuaren zenbateko hauek erabiliko dira:

DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERA: TXONTAKO BIRGAITZE PROGRAMATUKO BIZITEGI-INGURUNEAN DAUDEN BIZITEGI-ERAIKINEN BIRGAITZE ENERGETIKOA EGITEKO JABEEN ERKIDEGOENTZAKO DIRULAGUNTZAK, 853/2021 ERREGE DEKRETUAREN 1. PROGRAMA APLIKATUZ.

PARTIDA: 1.0200.780.05.152.20

ZENBATEKOA: 1.158.000 €.



6. artikulua DIRULAGUNTZA EMATEKO ARAUDIA

Eraikinetarako dirulaguntzak zuzeneko erregimenaren arabera emango dira (banakako ebaluazioa).

7. artikulua DIRULAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEAK

Eraikinetarako dirulaguntzen azken hartzaileak izango dira «Txonta»-ko birgaitze programaturako bizitegi-ingurunearen barruan dauden eraikinen jabe-erkidegoak, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera eratuak.

Azken hartzaileek dirulaguntzaren zenbateko osoa erabiliko dute dagozkien jarduketak ordaintzeko.

Jabekideen erkidegoak direnean, bai eta jabekide-erkidegoen elkarteak direnean ere, arau hori aplikatuko da; bai dirulaguntzaren zenbatekoa, bai obren kostua, etxebizitzan jabeen jasanarazi beharko zaie, eta, hala badagokio, merkataritza-lokalen jabeen edo bestelako erabilera bateragarria duten onibarren jabeen, jabetza horizontalari buruzko legerian aurreikusitako arauen arabera.

Hala ere, aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, jabekideen erkidegoko edo jabekide-erkidegoen elkarteko kideren batek ezin badu laguntza jaso legezko arrazoren batengatik, jabe edo gozamedun horri ez zaio egotziko jasotako dirulaguntzatik tokatuko litzaiokeen zati proportzionala; zati hori erkidegoko edo elkarteko gainerako kideen artean hainbanatuko da.

8. artikulua DIRULAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzen onuradunek eta azken hartzaileek honako obligazio hauek bete beharko dituzte, eta honako dokumentazio hau entregatu beharko diote Udalari:

- a) Azken hartzaileak dirulaguntzaren onuradun-kontsiderazioa izango dute, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharren ondorioetarako, eta egiaztatu beharko dute ez daudela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako dirulaguntzen onuradun izateko debekuen eraginpean.
- b) Azken hartzaileek berehala jakinarazi beharko diote Udalari, baita eskaera izapidetzen ari den bitartean ere, aitortza hori eragin duten baldintzen edozein aldaketa, baldin eta horrek laguntza-eskubidea galtzea ekar badezake. Aldaketa horien berri ez ematea nahikoa arrazoi izango da bidegabe kobratu ahalko ziratekeen zenbatekoak itzultzeko espedientea hasteko.
- c) Udalari jakinaraztea helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk lortu direla estatuko edo nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikotatik, kostu beraren gainfinantzaketarik ez eragiteko.

- d) Benetako titulartasuna egiaztatzea, datuen lagapena baimentzea beharrezkoa denean, eta agintari eskudunek eskatzen dituzten erantzukizunpeko adierazpen guztiak aurkeztea, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren eta 2021/241 (EB) Erregelamenduaren esparruan eska daitezkeen obligazioak betez. Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan garatutako laguntza-programak direnez, azken hartzailearentzat betebehartzat hartuko dira bere datuak estatu kideak proposatutako datu-base bakar batean erregistratzea, bai eta Europako honako erakundeek egindako kontrolen mende egotea ere: Europako Batzordea, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Bulegoa, Europako Kontuen Auzitegia eta Europako Fiskaltza. Era berean, obra-zuzendaritzari eta eraikuntza-enpresari eska dakizkiekeen erantzukizunpeko adierazpenak aurkeztu beharko ditu, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.
- e) Programako laguntzak ematerakoan ezarritako baldintzetako edozein ez betetzea, (Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako kasuetan), bai eta Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planari lotuta dagoen araudiaren mugariak, helburuak, epeak edo beste edozein alderdi ez betetzea ere (Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 11/2020 Legearen zazpigarren artikuluan ezarritakoaren arabera) jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedura hasteko eta berandutze-interesa eskatzeko arrazoia izango da, dirulaguntza ordaintzen den unetik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluko II. kapituluan araututako itzulketa-prozedura aplikatuz.
- f) "DNSH printzipioa – Do Not Significant Harm" (ingurumenari kalte nabarmenik ez egiteko printzipioa) eta etiketatze klimatiko eta digitalaren baldintzak erabat betetzen direla bermatzea, honako arau hauek ezarritakoan oinarrituz: Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana, Espainiako berreskuratze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakia (Council Implementing Decision – CID), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua, bai eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 5. artikulua, zeinaren bidez eratzen den Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren eta hura garatzeko araudiaren kudeaketa-sistema, proiektuen diseinuaren eta gauzatzearen fase guztietan, eta banaka jarduketa bakoitzerako. Nolanahi ere, erakunde onuradunek printzipio hori betetzen dela egiaztatzeko mekanismoak eta hura ezartzen dela ziurtatzeko neurri zuzentzaileak aurreikusiko dituzte, eta hori dirulaguntzaren justifikazio-memorian jasoko da. Berme hori egokitu egingo da udal-webgunean (www.eibar.eus) eta Txontako bulegoan eskuragarri dagoen eredura.
- g) Interes-, iruzur- eta ustelkeria-gatazkarik ez dagoela bermatzea, eta Eusko Jaurlaritzak edo Udalak onartutako Iruzuraren aurkako Neurrien Plana baldintzarik gabe eta inolako eragozpenik gabe onartzea. Plan horren xedapenak osoki beteko dira, erabat errespetatuz iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazka prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta Europako araudia; halaber, Europar Batasuneko erakundeek finantza-interesak babesteari buruz emandako erabakiak hartuko dira kontuan. Berme hori egokitu egingo da udal-webgunean (www.eibar.eus) eta Txontako bulegoan eskuragarri dagoen eredura.

- h) Europako Batzordeak, Iruzuraren aurkako Borrokaren Bulegoak (OLAF), Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolak egitea. Horretarako, organo horiei dirulaguntzari buruz eskatutako informazio guztia eskuratzeko aukera emango zaie, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan ezarritakoaren arabera.
- i) Baimena ematea berariaz Batzordeari, OLAFi, Kontuen Auzitegiari eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzari Finantza Erregelamenduko 129. artikuluko 1. paragrafoan aitortzen zaizkien eskubideak baliatzeko, eta ordaindutako funtsen azken hartzaile guztiak edo horien aplikazioan parte hartzen duten gainerako pertsona edo erakunde guztiak behartzea berreskuratze- eta erresilientzia-planean sartutako berrikuntzak eta inbertsio-proiektuak aplikatzeko neurriak betetzera.
- j) Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten agiriak, dokumentu elektronikoak barne, zaindu eta gordetzea, egiaztapen- eta kontrol-jarduketan xede izan daitezten, bost urteko epean, edo, finantzaketaren zenbatekoa 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada, hiru urteko epean, honako arauetan oinarrituz: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 132 artikulua, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.f) artikulua.
- k) Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema taxutzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan ezartzen diren komunikazio-betebeharrak betetzea. Zehazki, inbertsioek garatzen dituzten jarduketari buruzko informazio- eta komunikazio-neurrietan (informazio-kartelak, plakak, argitalpen inprimatuak eta elektronikoak, ikus-entzunezko materiala, web-orriak, prentsan jarritako iragarkiak, ziurtagiriak, etab.), honako logo hauek sartu beharko dira: a) Europar Batasunaren ikurra, "Europar Batasunak finantzatutakoa-Next Generation EU" testuarekin. b) Eibarko Udalaren logotipoa. c) Eusko Jaurlaritzaren logoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren aipamenarekin. d) Kontuan hartuko dira 821/2014 Beteazpen Erregelamenduaren II. eranskinean ezarritako arau grafikoak eta kolore normalizatuak.
- l) Jabetza-erregistroan bazterreko ohar bat inskribatzea Jabekideen erkidegoak jasotako laguntzetan jabekideen komunitateko elementu bakoitzak duen partaidetzari dagokion zenbatekoarekin, eta, inter vivos eskualdaketa geratzen bada, Udalari itzultzeko betebeharra ezartzea, bat etorri **ELEMENTU PRIBATIBOAK INTERVIVOS BORONDATEZ ERABILTZEAGATIK JABEEN ERKIDEGOARI EMANDAKO LAGUNTZAK ITZULTZEA. 15. artikulua.**
- m) Onuradunen identifikazio-datuak datu-base bakar batean sartzeko uztea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren (Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema taxutzen duena) 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

9. artikulua BIRGAIZEAREN XEDE DIREN ERAIKINEN BALDINTZAK

Deialdi honen xede diren eraikinek honako baldintza hauek bete behar dituzte diruz lagundu daitezkeen jarduerak gauzatu direla justifikatzeko:

a) Egingo diren jarduketan proiektua edukitzea.

Proiektuak eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko azterlan bat jasoko du, geroago eraikuntza- eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko planean garatuko dena, bat etorritik eraikuntza- eta eraispenerako hondakinak erabiltzeko eta kudeaketa arautzen dituen otsailaren 1eko 105/2008 Dekretuan ezarritakoarekin, eta honako baldintza hauek beteko dira:

1. Eraikitze-gunean sortutako eraikuntzako eta eraispenerako hondakin ez-arriskutsuen % 70 (pisuan) (2000/532/EC Erabakiak ezarritako Hondakinak Europako Zerrendan 17 05 04 kategorian aipatzen den material naturala izan ezik) beste material batzuk berrerabiltzeko, birziklatzeko eta berreskuratzeko prestatuko da, hondakinak ordeztzeko hondakinak erabiliz egindako betelanak barne, bat etorritik hondakinak hierarkiarekin eta EBko eraikuntza- eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko protokoloarekin. 21. orrialdea 67 orrietatik, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa.
2. Operadoreek eraikuntzarekin eta eraispenerarekin lotutako prozesuetan hondakinak sortzea mugatu beharko dute, EBko eraikuntza- eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorritik, eta eskura dauden teknikarik onenak kontuan hartuz eta substantzia arriskutsuak ezabatu eta segurtasunez manipulatu ahal izateko eraispenera selektiboa erabiliz, eta kalitate handiko berrerabilpena eta birziklatzea errazteko materialak gaika ezabatuz, eraikuntza- eta eraispenerako hondakinak eskuragarri dauden sailkapen-sistemak erabiliz. Era berean, eraispenera, ahal dela, modu selektiboan egitea ezarriko da, eta sailkapena, lehentasunez, hondakinak sortzen diren lekuan egingo da.

Proiektuak kalitatea kontrolatzeko programa bat izango du, zeina geroago garatuko den kalitate-kontrola kudeatzeko dagokion planean, Eraikuntzaren kalitate-kontrola arautzen duen urriaren 28ko 209/2014 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

b) Eraikinen diseinuak eta eraikuntza-teknikak

Diseinu eta teknikak zirkulartasuna bultzatuko dute, eta —bereziki, ISO 20887 aruari edo eraikinen desmuntatzeko edo egokitzeko gaitasuna ebaluatzeko beste arau batzuei dagokienez— erakutsiko dute nola dauden diseinatuta eraginkorragoak izateko bitarteko moldagarriak, malguak eta desmuntagarriak erabiltzean, berrerabilpena eta birziklapena ahalbidetzeko.

c) Esku-hartzearen xede den eraikinetik amiantoaren duten eraikuntza-produktuak kentzea.

Legez baimendutako enpresa batek kenduko du, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera. Prozesuan sortutako hondakinen kudeaketa eraikuntza- eta eraispin-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera egin beharko da.

Era berean, bizitegi kolektiboko tipologiako eraikinen kasuan hauxe bete beharko da:

1. Gutxienez sestra gainean eraikitako azaleraren % 50ek —beheko solairua edo azpiko solairuak izan ezik beste erabilera erabilgarri batzuk badituzte— bizitegi-erabilera edukitzea.
2. Jarduketek jabeen erkidegoaren edo erkidegoen adostasuna edukitzea, behar bezala elkartuta, jabe bakarreko eraikinen kasuan izan ezik; eta kasuan kasuko administrazio-baimenak izatea, nahitaezkoa denean.

10. artikulua KOMUNIKAZIOARI ETA PUBLIZITATEARI BURUZKO BALDINTZAK

Oinarri hauen arabera emandako dirulaguntza hauen kudeatzaileek nahiz onuradunek jatorria aitortzeko eta jasotako EBren finantzaketaren ikusgarritasuna bermatzeko betebeharrak orokorra dute. Dirulaguntzen xede den jarduketari buruz edozein hedabidetan egiten den erreferentzia orok honako honetan zehaztutakoa bete beharko du:

- “FAQ sobre obligaciones de comunicación de obligado cumplimiento” del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (nahitaez bete beharreko komunikazio-betebeharrei buruzko FAQ-ak) Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoarenak: <https://www.mitma.gob.es/ministerio/proyectos-singulares/prtr/faqs>
- “Manual de comunicación para gestores y beneficiarios de los fondos del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia” (Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren funtsen kudeatzaile eta onuradunentzako komunikazio-eskuliburua), Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Europako Funtsen Idazkaritza Nagusiak egina. https://www.mitma.gob.es/recursos_mfom/paginabasica/recursos/manual_de_comunicacion_para_los_gestores_del_plan.pdf
- Obligaciones de comunicación, publicidad y difusión de los beneficiarios y gestores del Mecanismo de Recuperación y Resiliencia (Berreskurapen- eta erresilientzia-mekanismoaren onuradunen eta kudeatzaileen jakinarazpen-, publizitate- eta komunikazio-betebeharrak - Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioa: <https://www.mitma.gob.es/ministerio/proyectos-singulares/prtr/transporte/publicidad-y-difusion-de-las-ayudas-del-mecanismo-de-recuperacion-y-resiliencia>

Era berean, karteletan edo beste komunikazio-euskarri batzuetan, hala nola infografietan, aurkezpenetan edo sare sozialetarako karteletan, logoak, lehentasunez, beheko aldean kokatuko dira, eta instalatu eta mantendu egin beharko dira.

- a) **Aldi baterako kartel bat**, obrak irauten duen bitartean, proiektuaren kokapenean publiko orokorrak ikusteko moduko leku batean; ahal dela, eraikinaren fatxada estaltzen duen instalazioan edo aldamioan egongo da, bat etorritik xedatutakoarekin eta kasuan kasuko udal-ordenantzekin; behar besteko tamaina izango du ondo ikus eta irakur dadin, eta proiektuaren izenburua eta programaren izena eta irudia argi eta garbi jasoko ditu, Europar Batasunak emandako dirulaguntza aipatuta, EBren logoa eta «Europa egiteko modu bat» leloa barne. Kartelaren diseinu grafikoak eta egiten diren zabalkunde-euskarriek Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak ezarritako baldintzak beteko dituzte, eta Programaren Irudiaren Eskuliburuan eskuragarri egongo dira goian adierazitako Interneteko esteketan.
- b) **Kartel iraunkor bat** proiektuaren kokapenean publiko orokorrak ikusteko moduko leku batean, xedatutakoarekin eta udal-ordenantzekin bat etorritik; behar besteko tamaina izango du ondo ikus eta irakur dadin, eta proiektuaren izenburua eta programaren izena eta irudia argi eta garbi jasoko ditu, Europar Batasunak emandako dirulaguntza aipatuta, EBren logoa eta "Europa egiteko modu bat" leloa barne. Kartelaren diseinu grafikoak eta egiten diren zabalkunde-euskarriek Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak ezarritako baldintzak beteko dituzte, eta Programaren Irudiaren Eskuliburuan eskuragarri egongo dira goian adierazitako Interneteko esteketan.

Eremu honetan garatzen diren deialdi, lizitazio, hitzarmen eta gainerako tresna juridiko guztiek, idazpuruan zein garapen-gorputzean, honako erreferentzia hau izan beharko dute: «Europar Batasunak finantzaturako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana - NextGenerationEU».

Honako dokumentuei aplikatuko zaie:

- Dirulaguntza-eskabideen formularioak.
- Lizitazio-iragarkiak.
- Administrazio-baldintzen eta jarraibide teknikoaren pleguak.
- Kontratuak.
- Kontratatutako lanak (azterketak, txostenak, inkestak, beste batzuk).
- Prentsa-oharra (aipamena testu-gorputzean).

Dirulaguntzen onuradunak Europako funtsetatik lortutako laguntzaren berri emango du jendaurrean, jasotako laguntzaren arabera, eta eragiketaren deskribapen laburra egingo du Interneteko gunean –halakorik balu– helburuak eta emaitzak azalduz, eta Batasunaren finantza-laguntza nabarmenduz.

Horrez gain, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean oinarri hauen xede diren laguntzen publizitate-betebeharrei buruz ezarritakoa bete beharko da.



11. artikulua DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa zehazteko, garatu beharreko jarduketan guztizko kostua hartuko da kontuan, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan (Berreskuratzeko, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko bizileku-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak arautzen dituen) eta Eibarko udalerrian 2022ko abenduaren 20an egindako Aldebiko Batzordearen 03. Akordioan (Txontako birgaitze programaturiko bizitegi-inguruneari buruzkoa) ezarritako zenbatekoak finkatzeko irizpideei jarraituz, Europar Batasunak – Nextgeneration-EUK Euskal Autonomia Erkidegoan finantzaturako berreskuratzeko-, eraldatzeko- eta erresilientzia-planeko bizitegi-birgaitzearen eta etxebizitza sozialaren arloko laguntza-programak gauzatzeari dagokionez.

Irizpide horiek honako hau ezartzen dute: Eraikin bakoitzeko emango den dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak ezingo ditu gainditu honako muga hauek:

- 5. Taulan** ezarritako gehieneko ehunekoa diruz lagundu daitezkeen jardueren kostuaz biderkatzetik lortutako zenbatekoa.
- Etxebizitza bakoitzeko laguntzaren gehieneko zenbatekoa, **5. taula** horretan ezarritakoa, bider eraikineko etxebizitza-kopurua, gehi, hala badagokio, merkataritza-lokalen edo bestelako erabilera duten lokalen sestraren gainean eraikitako azaleraren metro koadroko laguntzaren zenbatekoa, jarduketaren bidez lortutako energia primarioaren kontsumo ez-berriztagarriaren aurrezpen-mailaren arabera. Merkataritza-erabilera edo beste erabilera batzuetan sestra gaineko metro karratu bakoitzeko ezarritako zenbatekoa zenbatu ahal izateko, beharrezkoa izango da kasuan kasuko onibarrak jarduketara gauzatzeko kostuen parte izatea.

Eraikin-mailan lortutako energia aurrezpena	Dirulaguntzaren gehieneko portzentaia	Etxebizitza			Merkataritza-lokalak edo beste erabilera batzuk
		Laguntzaren gehieneko zenbatekoa etxebizitza bakoitzeko	Laguntzaren gehieneko zenbatekoa irizpide soziala duen etxebizitza bakoitzeko	Irizpide soziala duen etxebizitza bakoitzeko laguntzaren gehieneko zenbatekoaren gaineko gehikuntza	Laguntzaren gehieneko zenbatekoa m ² -ko
$\Delta C_{ep,nren} \geq 30\% \text{ eta } < 45\%$	%40	8.100 €	20.250 €	12.150 €	72 €
$\Delta C_{ep,nren} \geq 45\% \text{ eta } < 60\%$	%65	14.500 €	22.308 €	7.808 €	130 €
$\Delta C_{ep,nren} \geq 60\%$	%80	21.400 €	26.750 €	5.350 €	192 €

5 TAULA

Energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoan aurrezpenak hasieran zenbatetsitakoak baino txikiagoak eta eskatutako gutxienekoak baino handiagoak badira, edo diruz lagundu daitezkeen jardueren kostua murrizten bada, emandako laguntza publikoak beheratu egingo dira.

Diruz lagun daitezkeen jarduketan artean, jarduketara bakoitza garatzeko beharrezkoak diren gastuak sar daitezke, honako hauek barne:

- Jarduerari osorik edo partez egotz dakizkiokeen obren kostu zuzenak eta zeharkakoak.
- Honako hauei dagozkienak: hondakinen kalitate-kontrola, hondakinak erretiratzea, garraiatzea eta kudeatzea, erabilitako bitarteko lagungarriak, eta abar.

- Jarduketan garapenari buruzko jarduketak eta haiekin lotutako gastuak.
- Esku hartzen duten profesionalen ordainsariak, proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeagatiko ordainsariak, ziurtagiri eta txosten teknikoak eta eraikineko etxebizitzaren monitorizazioa.
- Lehendik Dagoen Eraikinaren Liburua eta, hala badagokio, EIT lantzea. Eraikinaren Liburua “birgaitzeko lehendik dagoen liburua lantzeko gida. Jarraibideak, gomendioak, aholkuak eta adibideak”-ra egokitu behar da, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren Hiri Agenda eta Etxebizitzaren Idazkaritza Nagusiak 2021eko azaroan egindako 853/2021 Errege Dekretuaren I. eranskina justifikatzeko.
- BEZa edo baliokidea den zeharkako zerga, baldin eta ezin badira berreskuratu edo osorik edo zati batean konpentsatu.

Ez dira diruz lagunduko lizentziei, tasei eta BEZaz bestelako zergei edo tributuei dagozkien kostuak.

Atal honetako hurrengo puntuetan zerrendatutako jarduera guztietarako laguntzen eskabideetan, jarduketan kostuaren portzentajea eta haren zenbatekoa adieraziko dira. Era berean, Kudeaketarako Hurbiltasuneko Bulego Teknikoak (Txonta Bulegoa), leihatila bakar gisa duen funtzioan, laguntza horien izapidetzea koordinatuko du, eta baita helburu bera izanik haiekin bateragarriak diren beste laguntza batzuk ere. Bulego Tekniko horrek onuradunek eskatu dituzten edo eskatuko dituzten laguntza guztien zerrenda, portzentajea eta zenbatekoak jasoko dituen dokumentu bat egingo du, finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzeko eta eman daitezkeen dirulaguntzen multzoak jarduera horien kostuaren % 100 gainditzea saihesteko, gainfinantzetarik gerta ez dadin.

Dirulaguntzen azken onuradunek berariaz adierazi beharko dute beren konpromisoa Europako, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko araudian eta oinarri hauetan ezarritako iruzurraren aurkako neurri guztiak betetzeko. Konpromisoa dirulaguntzen jakinarazpenean eta haien onarpen-agirian formalizatuko da; adjudikaziodunek sinatu egin beharko dute agiri hori.

12. artikulua PIGNORAZIOA EDO DIRULAGUNTZA GUZTIEN ORDAINKETAREN LAGAPENA

Jarduten duten erkidegoek kontu korrante bat izango dute finantza-erakunde batean, beren eraikina eraginkortasunez birgaitzera bideratua.

Onuradunak finantzazioa lortzen badu arestian adierazitako obrak edo jarduerak egiteko, jasotako laguntzak edo dirulaguntzak kobratzeko eskubidea finantza-erakunde hartzekodunaren alde pignoratu edo lagatzeko aukera egongo da.

Aurreko ondorioetarako, nahikoa izango da dirulaguntzak jasotzen dituzten finantza-erakundeek Eibarko Udalari jakinaraztea lagapena edo pignorazioa egin dela, eta jakinarazpen horretan adieraztea Udalak zer kontutan ordaindu behar dituen -izaera ezeztaezinarekin- laguntzari edo dirulaguntzari dagozkion zenbatekoak, pignorazioa eratzat har dadin, harik eta dagokion finantza-erakunde hartzekodunak finantzaketa ezereztu izanaren berrespena jaso arte.

13. artikulua IRUZUR, USTELKERIA ETA INTERES-GATAZKEN ARRISKUA PREBENITZEA

Nolanahi ere, onuradunak hautatzeko prozesuan edo baldintzak betetzen direla egiaztatzeko prozesuetan parte hartzen duten pertsonak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Adieraziko dute ezagutzen dituztela eta osorik onartzen dituztela honako bi plan hauek: Alkatetzaren 2022ko maiatzaren 17ko ebazpenaren bidez onartutako Eibarko Udalaren Iruzzurraren aurkako Neurrien Plana eta "iruzurraren aurkako eskakizunei, interes-gatazkari, finantzazio eta estatuko laguntzei eta ingurumenarekiko kalte ez-esanguratsuei buruzko baldintzak -Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzean exijitutakoak- betetzeko neurrien Plana" Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 29ko Erabakiaren bidez onetsitakoa.
2. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, iruzurraren aurkako neurrien Plan hori nahitaez ezagutu eta onartu beharko dute honako hauek: dirulaguntza emateko eskumena duen organoaren arduradunak, dirulaguntzaren oinarriak eta/edo deialdia idazten duten langileek, eskabideak ebaluatzen dituzten adituek eta batzordeko kideek, bai eta jarduera horietan Administrazioari laguntzen dioten eta aholkuak ematen dizkieten erakunde pribatuetako pertsona fisiko guztiek.
3. Atal honetako aurreko puntuetan sartzen diren pertsonak Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (DACI) beteko dute, kontuan hartuta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamenduaren (EB, Euratom) 61.3 artikuluan («Finantza Erregelamendua») eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezarritakoa.
4. Interes-gatazka eragin dezakeen arrazoiren bat duten agintariek eta langileek ez dute esku hartuko eragindako prozeduretan. Interes-gatazkaren bat egon daitekeela kontsideratzen denean, eragindako pertsonak idatziz jakinaraziko dio egoera hierarkian gorago dagoenari, eta kasuan kasuko Zerbitzu Juridikoek txosten bat egingo dute, dagokion erabakia hartzeko.
5. Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, bere kabuz edo IGAErekin (Estatuko Administrazioaren Esku-hartzailatza Nagusia, III. maila) lankidetzan, auditoretza espezifikoa egin ahal izango ditu interes-gatazkek prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko neurri egokiak dauden jakiteko.
6. Interes-gatazka bat detektatu ondoren, kasu bakoitzean aplikatu beharreko legezko arauen eta barne-erregelamenduen araberrako neurriak hartuko dira. Halaber, interes-gatazka egoeraren publizitate egin beharko da, gardentasun-printzipioa betetzeko.

14. artikulua JARRAIPENA, KONTROLA ETA EBALUAZIOA. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

1. Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak emateko egintzan ezarritako baldintzak bete direla eta aurreikusitako helburuak lortu direla justifikatzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan eta hura garatzen duen Erregelamenduaren 72. eta 75. artikuluetan ezarritako prozedurak erabiliko dira.
2. Erakunde onuradunek honako jarduketak bete beharko dituzte: laguntza eman duen Administrazioak egindako egiaztapen-jarduerak, Kontu-hartzailatza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolako jarduketak eta Kontuen Auzitegiaren legerian aurreikusitakoak.
3. Era berean, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak, eta, zehazki, hura garatzen duen 853/2021 Errege Dekretuaren "auzo mailako birgaitze-jarduerari laguntzeko 1. Programak" erregulatutako dirulaguntzek, honako betebeharrak bete beharko dituzte:
 - Europako Erkidegoetako Batzordeak eta Kontuen Auzitegiak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Auditoretzako Bulego Nazionalak eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltzak egin ditzaketan egiaztapen-jarduketak bete beharko dituzte.
 - Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planerako ezartzen den jarraipena, kontrola eta ebaluazioa bete beharko dute, bai eta EBko Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismorako ezartzen diren eta nahitaez aplikatu behar diren informazioa eta publizitateari, kontrolari, egiaztapenari, jarraipenari, ebaluaziorik dagozkien betebeharrak eta Europar Batasuneko barne-araudiak ezartzen dituen gainerakoak.
 - Bereziki, dirulaguntza ematen duen Administrazioak datuen kategoria bateratuak bilduko ditu -Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan berrikuntzak eta inbertsio-proiektuak gauzatzeko neurriei dagokienez, funtsen erabilera ikuskatzeko eta kontrolatzeko-, formatu elektronikoan, bat etorritik Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2 d) artikuluan zehaztutakoarekin.
 - Erakunde onuradunek finantzaketari buruzko egiaztagirak eta gainerako agiriak formatu elektronikoan gorde beharko dituzte, eragiketa egin eta bost urteko epean, edo hiru urteko epean, dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa denean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 132. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

15. artikulua ELEMENTU PRIBATIBOAK INTERVIVOS BORONDATEZ ERABILTZEAGATIK JABEEN ERKIDEGOARI EMANDAKO LAGUNTZAK ITZULTZEA.

Emandako laguntzak itzuli egingo direla bermatzeko eta ekintza publikoak birgaitze-proiektuaren garapenean sortutako gainbalioetan Administrazioak parte hartuko duela bermatzeko, elementu pribatiboengatik jasotako dirulaguntzen zati proportzionala (Jabeen Komunitatean duten partaidetza-kuotaren arabera) itzuli beharko zaio Udalari, diruz lagundutako eraikina osatzen duten etxebizitzak edo higiezinetak elementuak inter vivos eskualdatzen diren kasuetan.

Birgaitzeko dirulaguntzen xede diren higiezinak ezin izango dira inter vivos eskualdatu obraren amaierako ziurtagiria ematen denetik 10 urteko epean, baldin eta saltzaileak alde aurretik egiaztatzen ez bada eskualdaketa xede den elementuari egotz dakizkiokeen laguntzak itzuli direla; jasotako dirulaguntzak itzulketa egiten den unean eguneratuta egongo dira, *Itzulketaren oinarria. 6. Taulan* jasotako ehunekoen arabera.

Aurrez aipatutako helburuetarako, ez da eskualdaketzat hartuko etxebizitza osoa haren titularkideetako bati esleitzea, baldin eta ezkontza-banantzeen, dibortzioen, edo izatezko bikotearen hausturaren ondorio bada, edo bizikidetzata-batasuna hausturaren ondorioa bada, lehen graduko odolkidetasunaren bidez batutako kideen kasuetan.

Etxebizitzen eta lokalen titularrek dirulaguntza jaso izanaren egiaztapena aurkeztu beharko dute dagokion Jabetza Erregistroan, non, administrazio-dokumentu horretan oinarrituz, legedi hipotekarioaren arabera dagokion jabariaren mugatze xedatzailearen erregistro-idazpena egingo den.

Baldin eta higiezinaren etxebizitza eta lokal baten edo batzuen jabariaren xedapen-mugaketaren erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatu izanaren egiaztapena aurkeztu ez bada, emandako dirulaguntza murriztu egingo da jabetza horizontalaren banaketan elementu horiei higiezinaren guztizkoan esleitutako partaidetza-kuotari dagokion ehunekoan.

Obrak gauzatzeko prozesuan zehar eta obraren azken ziurtagiria egin arte, soilik itzuliko dira laguntzak baldin eta eskualdatzaileak etxebizitzen titularrak badira baina etxebizitza ez bada beren ohiko bizileku iraunkorra, edo lokalen titularrak badira baina jarduerara beren kontura atxikita ez badaude. Gainerako kasuetan, titular berria lehenengo pertsonaren posizioan subrogatuko da, epe osoa bete arte geratzen den denborarako.

Jasotako dirulaguntzaren itzulketa honako irizpide hauen arabera egingo da:

- Beren ohiko bizileku ez diren etxebizitzen edo beren konturako jarduerara bati atxikita ez dauden lokalen titular diren pertsona fisiko edo juridikoek dirulaguntza eman izanaren ziurtagiriaren balioaren % 100 itzuli beharko dute, bai dirulaguntza ematen bada proiektua gauzatu bitartean (laguntza ematea ebatzi ondoren), bai obraren amaierako ziurtagiria eman ondorengo hamar urteetan ematen bada ere.
- Etxebizitzen eta lokalen gainerako titularrek, inter vivos eskualdatuz gero, "6. Taula. Itzulketaren oinarria"-n adierazten den dirulaguntza eman izanaren ziurtagiriaren balioaren ehunekoa itzuli beharko dute.

6. Taula. Itzulketaren oinarria

ESKUALDAKETAREN DATA	ITZULKETAREN EHUNEKOA
Obra egin bitartean edo lehen urtean	100
2. urtean	91
3. urtean	82
4. urtean	73
5. urtean	63
6. urtean	53
7. urtean	43
8. urtean	33
9. urtean	22
10. urtean	11
10. urtetik aurrera	0

Itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, jabekideen erkidegoari emandako laguntza hartuko da oinarritzat. Dirulaguntza horri aplikatuko zaio eskualdaketa xede den elementuak dirulaguntzan duen partaidetza-kuota eta igarotako denborari dagokion itzulera-taularen portzentajea.

Itzuli beharreko zenbatekoek zuzenbide publikoko diru-sarrera izaera izango dute eta betearazpen-bidetik exijitu ahal izango dira.

16. artikulua DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA DNSH PRINTZIPIOA EZ BETETZEAGATIK

Ez badira betetzen DNSH printzipioa, etiketa klimatikoa edo 8. artikulua (DIRULAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEEN BETEBEHARRAK) jasotako baldintzak, onuradunak itzuli egin beharko ditu ordura arte jasotako zenbatekoak, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen den eta laguntzen kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen diren.

17. artikulua IZAPIDETZEA, EBAZPEN-EPEA ETA JAKINARAZTEA.

Eibarko Udaleko Hirigintza Sailak bideratuko du prozedura.

Dirulaguntza emateko ebazpena Eibarko Udaleko Alkateari dagokio.

Ordaintzeko ebazpenak emateko, aurkeztu diren eskaeren eta proiektuen inguruan sail horretako lege-aholkulariak eta udal teknikariek egindako txostenak hartuko dira oinarritzat. Saileko lege-aholkularia izango da instruktorea.

Udalbatzak deialdia onartu ondoren, dirulaguntzarekin zerikusia duten eskumen guztiak alkateak beteko ditu.

Onuradunei laguntzak eta dirulaguntzak ematea eta, hala badagokio, ordaintzea nahitaez lotuta egongo da oinarri hauen xede diren "birgaitze efizienteko" jarduketan finantzazioari. Edonola, dirulaguntza hauek jabe-kide-erkidegoak irekitako kontu korrontean ordainduko dira.

18. artikulua ERREKURTSOAK.

Ematen den ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, interesdunek errekurtoa jarri ahal izango dute administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, indarrean dagoen legediaren arabera.

19. artikulua DIRULAGUNTZAREN ESKAERA.

Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira www.eibar.eus udal webgunearen bidez. Izapidea **elektronikoki** egiteko, ziurtagiri digital bat eduki behar da (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.)

Kudeaketarako Hurbiltasuneko Bulego Teknikoak (Txonta Bulegoa) laguntza emango die jabeei eta jabe-erkidegoei Eibarko Udalari zuzendutako izapide elektronikoak egiteko.


Eskabideak aurkezteko epea 2023ko irailaren 1etik 29ra izango da (biak barne).

Eskaerarekin batera dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- a) Jabe-kideen Erkidegoak duen banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzeko agiria, emandako dirulaguntza hor sartuko baita. Ondoko agiri hauetako edozein izango da baliozkoa: Banku-laburpena; libreta; banketxeak emandako ziurtagiria edo "Titularra-kontua" inprimakia (eskuragarri dago Txontako auzo-bulegoan edo udal webgunean, www.eibar.eus), behar bezala beteta eta banketxeak zigilatuta.
- b) Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo horren balio bereko dokumentua eta ordezkariaren egiaztapena. Egiaztapen hori hurrengo letran adierazitako aktaren edo ziurtagiriaren bidez, edo zuzenbidean bidezkoa den edozein modutan egin daiteke (notario-ahalordez, eskritura bidez...). Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazio hau aurkeztu behar.
- c) Idazkariaren edo administratzailearen akta edo ziurtagiria, dirulaguntza onartzeko baimendutako ordezkariaren izendapena jasotzen duena.
- d) Jabeen Erkidegoaren, haren ordezkariaren edo higiezinaren jabe den pertsona juridikoaren Identifikazio Fiskaleko Kodea (IFK), hala badagokio.
- e) Jarduketan xede den eraikinaren edo eraikinen deskribapen osoa, dagokionaren arabera, honako hauek azalduz: azalera eraikia, posta-helbidea, guztizko altuera-kopurua eta solairu bakoitzekoa, beheko solairua barne.

- f) Jarduketan xede den eraikineko etxebizitzaren eta, hala badagokio, lokalen deskribapena, eraikitako azalerak eta katastroko erreferentziak barne.
- g) Dirulaguntzaren xede den higiezina osatzen duten elementu guztien erregistroko inskripzioei buruzko ohar sinpleak.
- h) Eraikinaren elementu bakoitzagatik ordaindu beharreko zenbatekoa adierazten duen taula, bakoitzaren partaidetza-kuotaren arabera.
- i) Idazkariaren edo administratzailearen akta edo ziurtagiria, jabe-erkidegoaren akordioarekin, zeinaren bidez laguntzak jasoko dituen eraikinaren birgaitze eraginkorra egitea onartzen den.
- j) Eraikinaren birgaitze eraginkorraren proiektu teknikoa.
- k) Eraikina sakonki birgaitzeko proiektu teknikoen kasuan, argazki-erreportaje bat haren eraginpean geratuko diren eremu guztiena eta eraikinaren fatxada nagusiarena.
- l) Enpresa eraikitzailearekiko kontratua eta aldaketa-gehirriak. Kasu bietan, aurrekontu banakatua sartuko da.
- m) Honakoak egiteagatik ordainsariak: Eraikinaren Liburua, eraikinaren ikuskapen teknikoa, Aurreproiektua, Oinarrizko Proiektua edota Egikaritze Proiektua, obren zuzendaritza fakultatiboa eta egin diren edo egingo diren beste edozein lan tekniko edo kudeaketa-lan idaztea.
- n) Lehendik dagoen eraikinaren edo etxebizitzaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria, oraingo egoeran, ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuan eskatutako edukiarekin, teknikari eskudunak sinatua eta Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren erregistroan erregistratua.
- o) Aurreikusitako eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria, proiektuan edo justifikazio-memorian jasotako jarduerak barne, eraikinaren edo etxebizitzaren egungo egoeraren eraginkortasun energetikoaren ziurtagirirako erabilitako egiaztapen-programa aitortu berarekin egina, teknikari eskudunak sinatua.
- p) Eraikinaren energia-auditoretza, Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasun energetikoari buruzko azaroaren 10eko 254/2020 Dekretuaren 39. artikuluan adierazitakoaren arabera.
- q) Eskatutako dirulaguntza guztien zerrenda, ehunekoa eta zenbatekoak, lehen adierazitako aurrekontu-banakapenaren arabera.
- r) Agintari eskudunek eskatzen duten dokumentazio guztia, estatuko eta Europako araudiaren arabera, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren eta 2021/241 (EB) Erregelamenduaren esparruan eska daitezkeen obligazioak betetzeko (ereduak Udalaren webgunean, www.eibar.eus eta Txontako Bulegoan daude eskuragarri). Bereziki:
- Datuen lagapenaren eta tratamenduaren adierazpena, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren jarduketan betearazpenari dagokionez.
 - Konpromisoaren adierazpena, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren jarduketan betearazpenari dagokionez.
 - Ingurumenari kalte nabarmenik ez egiteko erantzukizunpeko adierazpena (DNSH printzipioa), proiektugileak, obra-zuzendaritzak eta obren enpresa kontratistak sinatua.
 - Iruzuraren aurkako politikarekiko atxikimenduari eta ezagutzari buruzko adierazpen arduratsua.
 - Interes-gatazkarik ezaren adierazpena.
 - Adierazpen arduratsua, zeinaren bidez azaltzen den ez duela finantzazio bikoitzik.

Eskabidea aurkezteak berekin dakar Oinarri hauek baldintzarik gabe onartzea.



Dirulaguntza izapidetzeko, interesdunak hainbat datu eta dokumentu aurkeztu behar ditu, aplikatzekoa den araudi erregulatzaileak eskatutakoak.

Hala ere, interesdunek eskubidea dute honako agiri hauek ez aurkezteko (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena 39/2015 Legearen 28. Artikulua):

- Eibarko Udalaren esku dauden datu edo dokumentuak.
- Beste edozein Administrazio egindako dokumentuak
- Jatorrizko dokumentuak (salbuespen gisa, aplikatzekoa den araudiak kontrakoa ezartzen ez badu).
- Interesdunak aurretik edozein Administrazioan emandako datuak edo dokumentuak.

Era berean, Administrazio Publikoek dokumentuak elektronikoki jasotzeko betebeharra dute, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta eginez (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 155. art.).

Alde horretatik, eta dirulaguntza hau izapidetzeko, Eibarko Udalak datuen bitartekaritza-plataformen bidez edo bitarteko telematikoen bidez kontsultatuko die administrazio publiko eskudunei honako informazio hau, betiere interesdunak ez badio berariaz aurka egiten horiek erabiltzeari; kasu horretan, interesdunak berak aurkeztu beharko ditu dagozkion datuak edo dokumentuak:

- Lege-ordezkaritzaren kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiko lege-ordezkaritzaren erroldan erregistratuta egotea.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea.
- Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko zerga-betebeharrak egunean edukitzea.

Kontsulta ezin bada egin datuen bitartekaritza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez, Eibarko Udalak, salbuespen gisa, dokumentazio hori aurkezteko eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

Kudeaketarako Hurbiltasuneko Bulego Teknikoak (Txonta Bulegoa) kontsultak egin eta aurreko dokumentazioa egiaztatuko du, oinarri hauetan eta koordinatuko dituen beste edozeinetan kasuan kasuko eskumena duten erakundeek aurreikusitako dirulaguntzen eskaerak egiteko eskatzen dutena.

Behin eskatutako dokumentazioa aurkeztuta, dirulaguntza emateko ebazpena alkateari dagokio.

20. artikulua DIRULAGUNTZETARAKO BALDINTZEN ALDAKETA

Aldatzen badira dirulaguntzak ematerakoan kontuan hartutako baldintzak —betiere laguntzen xedea betetzat jotzen bada, eta, hala badagokio, aldi berean beste edozein erakunde publiko edo pribatutatik beste laguntza edo dirulaguntza batzuk jasotzen badira—, aldez aurretik jakinarazi beharko da, dirulaguntza emateko eskumena duen organoak berariaz onar dezan, eta, ondorioz, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da.

Horretarako, organo eskudunak dagokion aldaketa- edo likidazio-ebazpena emango du. Ebazpen horretan, emandako dirulaguntzen zenbatekoa egokituko da, laguntza horiek emateko ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuz, eta onuradunak, hala badagokio, soberan jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

Aurkeztutako dokumentazioaren analisiak erakusten badu energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoan aurrezpenak hasieran zenbatetsitakoak baino txikiagoak eta eskatutako gutxienekoak baino handiagoak direla, kontzeptu horrengatik emandako laguntza publikoak beheratu egingo dira.

Aurkeztutako dokumentazioaren analisiak erakusten badu energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoan aurrezpenak hasieran zenbatetsitakoak eta eskatutako gutxienekoak baino txikiagoak direla, itzuli egin beharko dira emandako laguntza publiko guztiak.

Aldaketak ez du inola ere eraginik izango jarduketaren izaeran, eta ezingo du ekarri dagokion laguntza ematea justifikatu zuten baldintzak ez betetzea.

Obrak egin bitartean, aurrekontuan sartutako kontzeptuen barruan, partiden kostua beheratzen bada, aldatu egingo da emandako ebazpena, baldin eta aurrekontua, inbertsioa edo diruz lagun daitezkeen kostuak globalki zenbatetsiak murrizten badira, eta, ondorio horietarako, minorazio-ebazpen bat eman ahal izango da.

Nolanahi ere, ez badira obrak egiten, ez bada eskatutako dokumentazioa aurkezten, edo ez badira betetzen dirulaguntzak jasotzeko gutxieneko baldintzak, laguntzak ezeztatu egingo dira, eta jasotako zenbateko guztiak itzuli egin beharko dira.

21. artikulua EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA.

Dirulaguntzen xede den jarduera edozein hedabidetan aipatzen bada, oinarri hauetako **10. artikulua, KOMUNIKAZIOARI ETA PUBLIZITATEARI BURUZKO BALDINTZAK** bete beharko ditu.

Horrez gain, abenduaren 9ko 19/2013 Legean (gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoan) aurreikusitakoa bete beharko du, oinarri hauen xede diren laguntzen publizitate-betebeharrei dagokienez.

22. artikulua DIRULAGUNTZEN ARTEKO BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan deitzen diren dirulaguntzak, oro har, bateragarriak izango dira bizitegi-erakinen eta etxebizitzaren energia-efizientziaren xede bererako beste edozein laguntza publikorekin, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada eta beste laguntzen (izan tokikoak, autonomia-erkidegokoak, estatu mailakoak edo Europakoak) erregulazioak onartzen badu.

Oinarri hauetan ezarritako energia-efizientziaren arloko dirulaguntzak jaso ditzaketen eraikinetan eta etxebizitzetan egin beharreko jarduketek eta esku-hartzeek ezin izango dute energia-efizientziaren kontzeptu bererako beste dirulaguntzarik jaso, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko uztailaren 21eko Aginduan (etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko, irisgarritasunerako eta energia-efizientziarako jarduketa babesgarrietarako finantza-neurriei buruzkoa) xedatutakoaren kontura, ez eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduan araututako laguntzen kontura ere. Aldiz, bateragarriak izango dira urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 1. programa bereko pertsona zaurgarrientzako dirulaguntzekin.

Oinarri hauetan arautzen eta deitzen diren dirulaguntzak guztiz bateragarriak izango dira Foru Ogasunek etxebizitzak eta bizitegi-erakinak birgaitzeko jarduerekin lotuta ezartzen dituzten kenkariekin, hobariekin edo bestelako zerga-onurekin; hori guztia berariazko araudian xedatutako baldintzetan.

Bereziki, bateragarriak izango dira Udalak Txonta auzoko bizitegi-erakinak eraginkortasunez birgaitzeko bideratzen dituen dirulaguntzekin, baldin eta, guztiak batera, kasu bakoitzean babes daitezkeen aurrekontuen % 100 gainditzen ez badute. Ez dira bateragarriak izango Udalak igogailuak jartzeko eta fatxadak berrizatzeko ematen dituen laguntzekin.

Talde teknikoek jarduketan aurrekontuaren eta jarduketan laborpenaren banakatze bat egingo dute, aurreikusitako jarduketa-motetara eta dirulaguntzak eskatzen zaizkion erakunde bakoitzaren izapidetze-baldintzetara egokituak. Jarduketa bakoitzak aurrekontu independente bat izango du, zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak eta haiei egotz dakizkiekeen zergak jasoko dituen. Era berean, jarduera guztien aurrekontu osoa erantsiko da, 3. artikulua (OINARRI ARAUTZAILEEN EREMUA ETA APLIKAZIOA.) zerrendaren arabera.

Artikulu honetan xedatutakoa egiaztatzeko, Oinarri hauetan deitzen diren laguntzak onartzean, interesdunek helburu berarekin eskatu edo jaso diren gainerako laguntzak jakinarazi beharko dituzte, edo, aldiz, helburu bererako beste eskabiderik edo laguntzarik ez dagoela adierazi beharko dute adierazpen arduratsu baten bidez.

Bateragarritzat jotako laguntzen izapideak laguntza bakoitzari dagokion prozeduraren arabera egingo dira, oinarri eta deialdi arautzaileetan ezarritakoaren arabera.

23. artikulua DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEKO MODUA. JUSTIFIKAZIOKONKONTUA.

Oinarri hauetan aurreikusitako dirulaguntzak Alkatetzaren ebazpen bidez ordainduko dira, instrukzio-organoak proposatuta, eskatutako egiaztagiria aurkeztu eta, hala badagokio, egiaztatu ondoren. Ebazpen horretan berariaz aipatuko da funtsen jatorria, eta Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoa aipatuko da.

Aitortutako laguntzak jasotzeko, banku-transferentzia egingo da eraikina modu eraginkorrean birgaitzeko bideratutako kontura, pertsona edo erakunde onuradunak baliozkotua.

Dirulaguntzen ordainketa prozedura honen arabera egingo da:

- a) Lehenengo ordainketa, dirulaguntzaren zenbatekoaren % 45koa, ordaintzeko eskabidea **elektronikoki** aurkeztu ondoren egingo da, **Udalaren web-orriko (www.eibar.eus) DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA izapiderearen bidez**. Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Higiezinako etxebizitza guztien jabariaren xedapen-mugaketaren erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatu izanaren egiaztagiria. (egiaztagiri guztiak aurkezten ez badira, 15. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio).
- **8. artikulua (DIRULAGUNTZEN AZKEN HARTZAILEEN BETEBEHARRAK)** zerrendatutako dokumentazioa.
- Obra egiteko enpresa arduradunarekiko edo arduradunekiko kontratua edo kontratuak, dirulaguntzen xede diren obra guztiak betetzea bermatzen dutenak.
- Obra-hasieraren Akta, jabekideen erkidegoko presidentek, enpresa eraikitzailearen ordezkariak eta zuzendaritza fakultatiboak sinatua.

Ez da beharrezkoa izango Udalaren eskuetan dagoen dokumentazioa berriro aurkeztea, aurretik beste administrazio-espediente batzuetarako aurkeztu izan bada.

- b) Gainerako zenbatekoa justifikazio-kontua egiaztatu eta onartu ondoren ordainduko da. Justifikatzeko modua justifikazio-kontua modalitatearen bidez egingo da; **elektronikoki** aurkeztuko da www.eibar.eus udal webguneko **DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA izapiderearen bidez**; eta honako agiri hauek izango ditu:

- a) **Jarduera-memoria**, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duena, oinarri hauetan eta laguntza emateko ebazpenean eskatutakoaren arabera, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Memoria hau tituludun teknikari eskudun batek egin eta sinatuko du, eta jardueren amaiera-data ere adieraziko du. Bertan, nahitaez bete beharreko araudia bete dela adieraziko da. Memorian, ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko printzipioa (DNSH) betetzen dela justifikatuko da, hondakinen eta zirkulartasunaren arloan ezarritako betekizunen arabera.
- b) **Obraren exekuzio fakturak, aurretik aurkeztu ez direnak.**
- c) Aurkeztutako fakturen **ordainketa-frogagiriak.**

- d) **Eraikinaren Liburua.**
- e) **Obren amaierako ziurtagiria**, haien zuzendari fakultatiboak emana eta sinatua.
- f) **Eraikinaren edo etxebizitzaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria, jarduketak egin ondoren lortua**, esku-hartzearen aurreko ziurtagirirako erabilitako egiaztapen-programa aitortu berarekin egina, teknikari eskudunak sinatua, zeinean egiaztatuko den dirulaguntza lortzeko ezarritako baldintzak betetzen direla; autonomia-erkidegoko organo eskudunaren erregistroan erregistratua egongo da.
- g) **Instalazio termikoaren ziurtagiria, hala badagokio**, instalazioaren zuzendariak edo baimendutako instalatzaileak sinatua, Autonomia Erkidegoko organo eskudunean erregistratua, RITEren arabera.
- h) **Egindako obren argazki-agiriak**, ahal dela koloretan.
- i) **Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntza batzuen xehetasuna jasotzen duen ziurtagiria edo adierazpen arduratsua**, zenbatekoak eta jatorria adierazita, Erkidegoko presidenteak edo, hala badagokio, idazkaria edo administrazioa daraman pertsonak emana. Hala badagokio, etxebizitzaren titularraren edo titularren adierazpen arduratsua.
- j) **«Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko» (DNSH) printzipioa betetzearen adierazpen arduratsua**, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluko 6. paragrafoan ezarritakoaren ildotik, zeinaren bidez, Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen den; adierazpena Udalaren web-orrian (www.eibar.eus) eta Txontako Bulegoan eskuragarri dagoen ereduaren arabera egingo da. Adierazpena kontratistak, azpikontratistek, proiektuaren egileak, obra-zuzendariak eta obra-egikaritzearen zuzendariak bete beharko dute.
- k) **Eraikinaren Liburua egin izanaren faktura.**
- l) **Oinarrizko edota Egikaritze proiektuen fakturak, obren zuzendaritza fakultatiboarenak eta egindako beste lan tekniko guztienak.**

Obrak egiteko gehieneko epea 2024ko ekainaren 30ean amaituko da.

Onuradunek dirulaguntzaren helburua bete dela eta jasotako funtsak aplikatu direla justifikatzeko duten epea 2024ko abuztuaren 31n amaituko da.

24. artikulua EZ-BETETZEAK ETA JASOTAKO DIRULAGUNTZAK ITZULTZEKO PROZEDURA

Baldin eta onuradunek:

- Ez badute dirulaguntza erabiltzen eskatu eta eman zeneko helburu espezifikorako,
- Ez badute dirulaguntza eskatu zeneko jarduera egiten,
- Ez badute justifikatzen dirulaguntza aplikatu denik eskatu zeneko xedeetarako,
- Ez badituzte betetzen dirulaguntza ematea eragin zuten baldintzak,
- Uko egiten badiote ikuskaritza-lanari,
- Ez badituzte betetzen onuradunei dagozkien obligazioak Dirulaguntzetarako Lege Orokorraren 37. artikuluko ezarritako moduan, edo obligazioak epez kanpo betetzen badituzte -noiz eta lortu nahi den xede publikoa eskuratzeko baldintza guztiak betetzea edo epea betetzea erabakigarria den-,

Interesdunari entzun ondoren, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdutzat deklaratu da eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Udaleko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, honako arauetan ezarritakoaren arabera: Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua.

Baldin eta higiezinaren etxebizitza eta lokal baten edo batzuen jabariaren xedapen-mugaketaren erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatu izanaren egiaztagiria aurkezten ez bada, emandako dirulaguntza murriztu egingo da jabetza horizontalaren banaketan elementu horiei higiezinaren guztizkoan esleitutako partaidetza-kuotari dagokion ehunekoan.

Administrazioaren zerbitzuek finantza-egiaztapen edo -kontrol bat egiten dutenean agerian geratzen bada egindako gastu guztiak edo batzuk ez direla ordaindu, dirulaguntza kobratu ondoren, eta hartzekodunek eskatu ahal badituzte, itzulketa eskatuko da proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz; horretarako, ordaindu gabeko gastuen proportzioan hartuko da itzulgarritzat dirulaguntza.

Era berean, itzuli egin beharko da diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainean lortutako soberakina, eta horrek dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze-interesa exijitzea Dakar.

25. artikulua DIRULAGUNTZEN ARLOKO ARAU-HAUSTE ETA ZEHAPEN ADMINISTRATIBOAK. ZEHAPEN-PROZEDURA.

Gai honetan, EIBARKO UDALAREN DIRULAGUNTZETARAKO ORDENANTZA OROKORRAREN VI. TITULUAK ezarritakoari egingo zaio kasu.

26. artikulua ADMINISTRAZIO BIDEAREN AMAIERA ADIERAZTEA.

Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari; horren kontra, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epea dago Ebazpena eman zuen organoari zuzendutako berrazterketa-errekurtsoa jartzeko, edo, bestela, hile biko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako Epaitegian (Atotxako Justizia Auzitegia, Teresa de Calcuta plaza 1).

27. artikulua DATU PERTSONALEN BABESA.

Dirulaguntza eskaera aurkeztean, eskaera egiten duen erakundeak deklaritzen du, deialdian ezarritako baldintza guztiak bete egiten dituela eta oinarri hauek goitik behera onartzen dituela. Halaber, adierazten du bere baimenaz biltzen direla eskaeran jasotako datu pertsonalak, eta onartzen duela datu horiek tratamendu automatizatua izatea eta sartzea behar den baimena duten Eibarko Udalaren hainbat fitxategitan; eta onartzen duela datu horiek bakarrik erabiltzea Udalaren gestioetarako. Datuak laga edo komunika dakizkieke beste Administrazio Publiko batzuei edo hirugarren datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatzen dituen kasuetan.

